

# PoetikaKKKK

## Taldean jorratuko bagenu?




**Hausnartzeko eta batera sortzeko ekintza hau “Gipuzkoako sektore kultural eta sortzailearen erronkak eta aukerak” jardunaldiaren esparruan garatu da. Kutxa Kulturek eta KARRASKANek antolatu dute elkarrekin, eta ColaBoraBorak dinamizatu du 2022ko maiatzaren 25ean.**

**Parte-hartzaileak: Alvaro, Alvaro, Ana, Enara, Fernando, Imanol, Iñigo, Iran, Marta, Onintza, Patxi, Ricardo, Rosa, Santiago.**




Hona hemen saioaren helburua: erronkak, arazoak, kezkak, aukerak, premiak, mugak... antzematea (ZER), partekatzea eta haiei aurre egiteko ustezko moduak irudikatzea (NOLA). Horretarako, jokatu egin dugu, eta irudi poetikoak, bineta edo meme formatuko narraziotxoak, ikusizko olerkiak eta gorputz-eskulturak sortu ditugu.



# Poetika honen guztiaren ondorioz ekintza-plana sortuko balitz, ordea?

## ZER EGIN DEZAKEGU ELKARREKIN?

**Hiru unetan egindako topaketa:**



**1/3 ZER BEHAR DUGU? Soziodrama. Geure burua aurkeztea, elkar ezagutzea, elkarri entzutea, geure buruari zenbait galdera egitea berotzen joateko eta espazioan betetako zenbait lekutatik erantzutea.**

**Hiru unetan egindako topaketa:**



**2/3 SENTSAZIOAK-ERRONKAK ZEHAZTUKO DITUGU? Irudi poetikoak. Norberak ordura arte jorratutakotik burutik kendu ezin duen ideia berreskuratuko du, eta, gero, partekatu egingo den bertsoan edo olerkian adieraziko du..**


Hiru unetan egindako topaketa:
3/3 ZER EGIN DEZAKEGU ELKARREKIN? Gorputzak jartzea / Ogitartekoak / Objektologia. Hiru laguneko taldeetan, abian jartzeko moduko ideia lantzen da. Hiru txokotan lan egiten da hausnartzeko eta plangintza egiteko beste logika batzuk abian jartzen dituzten hiru hizkuntza sortzaileren inguruan, eta fitxa egiten da laburpen eragile modura..




# 1/3 ZER BEHAR DUGU?

**SOZIODRAMAN SORTUTAKO IDEIA BATZUK**
**(bat-batean bildutakoak eta gutxi-gutxi txukundutakoak)**




Leku guztietan egoteko sentsazio aztoragarria eta gu geu bakarrik sentitzeko errealitatea.
Kolektibotasunerako astirik ez izatea, nahiz eta kolektibotasuna garrantzitsua dela uste izan.

Gero eta zorrotzagoa den sistemaren eraginpean gaude, aldi berean moldagarritasuna eta malgutasuna eskatzen dizkigun munduan..

Bizitzaren, esperientzien, harremanen burokratizazioa. Leku guztietan, prozedurak, eskabide-orriak, adierazleak, oztopo administratiboak... dira nagusi




Belaunaldi-txandaketaren unea instituzioetan eta eragileetan. Kolapsorako beste aukera edo faktore bat ote da? Adinari egozten dizkiogu pertsonekin zerikusi handigoa duten gaiak? Adinkeria edo gerontokrazia pairatzen dugu neurri handiagoan?

## Aukera berriak.
## Nola igorri lehendik datorren horretatik ondo datorkiguna eta, aldi berean, nola eman berria gertatzeko aukera?



Arlo instituzionaletik haratago ez dago kulturarako merkaturik! Ez ote dago kulturarako merkaturik arlo instituzionaletik haratago? Instituzioa bertan behera uzten ari da bere zeregina, eta merkatu berriak bilatzera behartzen gaitu.

## Jende gehiago dago eszenatokian ikus-entzuleen artean baino.

Sektore kulturaletik profesionala dena aitortzea eta, aldi berean, gabeziak antzematea. Ezin dira profesionalizazioa eta merkantilizazioa nahastu.



Industrializaziorantz eta startaperizaziorantz doan logika dago, baina ez du lekurik errealitatean eta jarduketa kulturalen izaeraren beraren aurka doa (arte bizien edo prozesuarekin eta artisautzarekin zerikusi handiagoa dutenen logikaren kontra, behintzat).

## Eginkizun anitzeko sortzaileak izatea, bideragarriak izateko.

Alde handia dago instituzioek gidalerro moduan zehaztu eta sareari eskaintzen diotenaren eta sareak behar edo nahi duenaren artean..



# Nola jarraitu “kulturarako eskubideari” buruz hitz egiten testuinguruan merkantilizazioa eta zerbitizazioa joera direnean?



# Bide luzea dago GURE ARTEAN TOPO EGITEKO (zenbait eratako eragileen artean: sortzaileak / instituzionalak / merkatua / ...).

Ulertu eta elkarri ulertu nahi izatea, ekintzarako, bide hau egiteko giltzarri.

Eragiten eta hitz egiten jarraitzea. Harreman-lerroa ez haustea.




## Aurreiritziak eta konfiantza falta gainditzeko baldintzak sortzea.

Subjektibotasun eta jarduketa berriak bilatzea, zenbait eragileren, diziplinaren, erronkaren... arteko elkarrizketa, entzunaldia, kontrastea, enpatia, trukea, hibridazioa sustatzeko.

Honako honexetarako prestasuna dagoen susmoa: hitz egitea, ulertzea, KLIXEAK APURTZEA, gauzen sustraira eta, aldi berean, praktikotasunera zein zehaztasunera joaten saiatzea, gu geu modu propositiboan problematizatzea, elkarrekin jokatu nahi izatea eta ahalik eta errespetu zein arreta handienaz egitea..



Izaeraren testuingururako balioa BITARTEKO ERAGILEEN, konektoreen, bidelaguntzaileen bitartez (horrez gain, eragile horiek anitzak badira, aukerak biderkatzen dira –horrelako eragileen ordezkariek saioan bertan parte hartu dute; esate baterako, Kutxa Kultur, K Bulegoa, Dantzagunea edo KARRASKAN–).

**Agendak, helburuak, baliabideak, aurrekontuak, arriskuak, harremanak, interesak, egikerak… partekatzea.**




**PROFIL OSAGARRIAK BATERATZEA (sortzaileak eta kudeatzaileak, esaterako). .**

**Norberak egiten dakienari eta gozatzen duenari balioa ematea.**

**Gurutzatu egiten diren eta zehaztasunetik harremanak zein lankidetzak ezartzen doazen proiektu txiki erabilerrazak.**

## Elkarrekin ibiltzean zeure ahotsa ozenago egitea.

**ELKARREKIN EGITEA bereizgarria da berez (jardunaldi honen baterako produkzioa adierazgarria da erabat).**

# Gauzak lortzen badira, NABARMENTZEA, GOGORATZEA, OSPATZEA.




# 2/3 SENTSAZIOAK-ERRONKAK ZEHAZTUKO DITUGU?

**BERTSOAK ETA OLERKIAK: ABESTUTAKO ETA DEKLAMATUTAKO AUKERAK**
**(sorkuntza-lan guztien eta hautatutako bertso batzuen irudia)**



# Banakako hausnarketarako astia.

Buru batzuetatik, txinpartak ateratzen dira; beste batzuetatik, kea. Errimak eta tonadillak xuxurlatzen dira, biraka dabilen jendea. PoetikaKKKK usaintzen da, eta lorategi bertikala entzuten da. Proposamenak gorpuzten ari dira. Bertsoek gorputzak irudikatu eta sorgindu egiten dituzte. Abestu egiten dugu, deklamatu egiten dugu eta olerkiak egin izana ospatzen dugu.


ESCUCHAR CON ATENCIÓN
PONER ATENCIÓN EN LA ESCUCHA
MENOS COSAS
MAS CUIDADAS
MENOS COSAS
MAS CUIDADAS
MENOS COSAS
MAS CUIDADAS
MENOS COSAS
MAS CUIDADAS
EUSKADITIK NATORREN
ARTISTA BAT NAIZ NI (BIS)
ASKO SUFRITZEN DET
BAITA ZUK ERE?
1- DIRU GABE LAN EGITEN DET
2- EZJAKINTASUNETIK LAN EGITEN DET
3- BAKARDADEAN LAN EGITEN DET
4- ORDU GEHIEGIZ LAN EGITEN DET
Ser creativo y
hacer lo que diga el otro
- ¡Feliz día de la Ansiedad!
- Ñé
¿Qué mundo le vamos a
dejar a Jordi Hurtado?


Nola gerturatu eta ulertu
banatzen gaituen aldea?
Galderak azkar etortzen dira
erantzunak nekez ordea.
Nola mantendu maitea ta zaindu
gu guztion ondarea.
Feliz día de la ansiedad.
Es mañana.
ZORTZIKO HANDIA
ROSA



1- Diru gabe lan egiten det (txin, txin, txin)
2- Ezjakintasunetik lan egiten det (zer?, zer? zer?)
3- Bakardadean lan egiten det (Bakar, bakar, bakarrik)
4- Ordu gehiegiz lan egiten det (lan ta lan, lan ta lan)

Escuchar con atención
Poner atención en la escucha




# Ser creativo
# y hacer lo que diga
# el otro.

**KuKu Kanta**
**KarrasKan**
**KutxaKultur**
**gipuzKoa Kultur**
**KuKu Kanta**
**KKKKKKKKKKK**

**OSCOSASMÁSCUIDADA**
**SMENOSCOSASMÁSCUI**
**DADASMENOSCOSASM**
**ÁSCUIDADASMENOSCO**
**SASMÁSCUIDADASMEN**
**OSCOSASMÁSCUIDADA**
**SMENOSCOSASMÁSCUI**
**DADASMENOSCOSASM**
**ÁSCUIDADASMENOSCO**


Sektorean dugun problemia
bada sistematikoa.
Lehen pertsona deklinatzean
erabil beti plurala.
Si soy caballo de batalla
y la creatividad no me acompaña.
Solo os puedo decir, sigamos fuertes amigas,
la cultura es ley de vida.
Saborear el estruendo
de nuestra libertad.
Kutxa
Kultur
Gaztedi




# 3/3 ZER EGIN DEZAKEGU ELKARREKIN?

## GORPUTZETAN, BINETETAN ETA OBJEKTUETAN OINARRITUTAKO PLANAK



**Hausnarketa kolektiborako astia, ustezko ekintza zehatz eta eragileak proposatzeko. Zenbait eratara pentsatzeko aukera eskaintzen diguten hizkuntzak. Bineta guztien artetik, mutua aukeratu dugu. Gure eskultura adierazpidea da.Objektuen mihiztadura jateko modukoa da.**

**Ez gara esan txarrekoak…**

# Burujabeak gara!



# GORPUTZAK JARRI

"Aukeratutako erronkari buruz pentsatzea eta zuen gorputzetatik abiatuta sortutako eskultura baten bidez, horri heltzeko modua irudikatzea. Zuen gorputzez gain, behar izanez gero, mezua indartzen lagunduko dizuten beste karakterizazio-elementu batzuk ere erabil ditzakezue. Zer kontatu nahi du gorputz-eskultura honek? Proposamen osoa edo haren zati bat ordezkatzen du? Nola kokatzen dira gorputzak elkarren eta publikoaren aurrean? Ekintza zehatzen bat egiten ari zarete?"



# C.D.P.N.T.N.F

## (Colectivo Dramático, Pero No Tanto, No Flipes / No Follo)


C.D.P.N.T.N.F
(Colectivo Dramático, Pero No Tanto, No Flipes / No Follo)




Sortu aurretik ere bere kabuz desegindako taldea eta beste modu eta egoera batzuen arabera berriro sortzeko aukerak. 40-55 urteko eragileak ditu helburu (fardelak iristen zaizkizunean), gustura ez dauden izakiak, sasiezegonkorrak, baina haien pribilegioen jakitun.

Ekintza performatibo askatzaile gozagarri bezain kontrajarria proposatzen dute. Otordu-zerbitzuko mahaira daude kateatuta, eta kalitate handiagoko otordu-zerbitzua eskatzen dute jarduereetan; esate baterako, egun horretan bertan gertatutakoan (zainketen eta “elikagai” dugunaren adierazgarri den otordu-zerbitzua).



# BUNBUILOAK

“Aukeratutako erronkari buruz pentsatzea eta komiki-bineta batean elkarrizketa baten bidez aurre egiteko modua irudikatzea. Zuen proposamenarekin nolabait zerikusia duen bineta bat aukeratzea. Ez saiatu ideia osoa bineta soil batean kontatzen, espazio iradokitzaile gisa erabiliz, baizik eta zerbait zehatza adierazteko, osotasun baten zati bat. Nahi baduzue, bineta bat baino gehiago erabil dezakezue ideia berari buruzko mezuak helarazteko. Zein da elkarrizketaren edukia? Zer hizkuntza eta tonu mota erabiltzen da? Zer lotura ezartzen da binetaren zati grafikoarekin?”


FER
ALVARO
KE-DA-DA


TERTULIA
hablar
estar
compartir
charlar
empatizar
ICC - SECTOR CULTURAL/CREATIVO
EMERGENTES
COLECTIVOS ART./CULT.
INSTITUCIONES

KE-DA-DA




**Solasaldi antzeko aldizkako topaketak, zehaztutako helburu emankorrik gabe, baina arrazoi/gai bateratuarekin eta nolabaiteko formatu/dinamizazioarekin. Geure banakako burbuilak zulatzea da helburua. Antzeko arazoak eta aukerak ditugula jakitea. Elkarrekin egoteko, topo egiteko plazera berreskuratzea. Horretaz gozatzea. Irakurketa-taldearen eta terapia-taldearen artean, nora ezean doan txangotxoa egitea edo eserleku batean pipitak jatea.**

**KONTUZ, KONTRAESANA! Besterik gabe elkartu nahi dugu, baina, gero, horretara bakarrik gonbidatzen gaituztenean, ez goaz, gehixeago eskatzen dugulako mobilizatzeko eta geure egunez egunetik irteteko. Nola hautsi gurpil zoro hori? Zenbait eragileren artean antolatzean, deialdiko masa kritikoa handitu daiteke, inplikatutako erkidegoena.**

# OBJETULOGIAK



**"Aukeratutako erronkari buruz pentsatzea eta poesia objektuala baten bidez, horri heltzeko modua irudikatzea, collage tridimentsional baten bidez, tramankulu sinboliko baten bidez, TBOren asmakizun baten bidez. Hainbat objektu aukeratu eta muntatu zuen ideia irudikatzeko. Alderdiek osotasun bat osatu behar dute. Zer kontatu nahi du poema objektual honek? Baliagarritasunik edo erabilerarik izango al luke? Zer esanahi ematen dio multzoari sartutako objektu bakoitzak?"**


ERREZETA BERRIAK
MARTA
ROSA



# ERREZETA BERRIAK




**Prestaketa-aldiaz gozatzea. Prozesuak su motelean prestatzea berriro. Denboraz, arretaz, maitasunez. Bor-bor egin dezala, pil-pil egin dezala.**

**Murtxikatzea eta ahogozatzea, irentsi beharrean. Hasteko, guk geuk egitea/prestatzea. Kulturaren arlotik gizarterantz. Elikaduraren burujabetza berrirantz. Denetara ez egotea. Ezetz esaten ausartzea. Geuk eusten diogu zartaginari! (gure tresnak, gure balioak, gure talentuak, gure aukerak…)**



# ZER DARAMAGU?

**Pil-pilean, Prestaketa, Irekidura, Burbuila zulatzea, Urratsak ematea, Burrunba, Denbora, Ahogozatzea, Gogoeta gehiago eta brainstorming gutxiago, Solasaldia.**

# ZEIN IZAN DAITEKE TOPAKETA HONEN “ONDORIOA”?

Oinarrizko ideia bakunak, “asmo handiegikoak” ez direnak, horrexegatik hain muturrekoak, egiaz beteak eta ahaltsuak direnak. Jarduketa txikien atzean ezkutatutako estrategia handiak. Behin eta berriro egindako proposamenak, baina, gero, abian jartzen ez ditugunak edo, egin egiten badira, gure partaidetza ez dutenak.

ELKARRETARATZEKO premia, EGOTEKO, ELKAR IGURZTEKO, ELKAR EZAGUTZEKO, PARTEKATZEKO, IKASTEKO, ELKARREKIN LAN EGITEKO BEHARBADA, erabilgarritasun zuzenaren inguruko irrika albo batera utzita.



# ASTI HORI HARTZEKO ETA GOZATZEKO BALDINTZAK ZEHAZTEA.

**Harremanen eta ugalketaren arloari lekua uzteko, lanaren beraren funtsezko osagaia da-eta. Beste hizkuntza batzuk, beste elkarretaratze batzuk, espekulatzaile, poetiko, saltsero... gehiago bilatzeko beste modu batzuk jokoan jarri ahal izateko.**



**Geure burbuilak zulatzea, benetan elikatzen gaituena zehaztea, poetikotasunak iragazitako beste hainbeste osagai eranstea eta den-dena batera su motelean prestatzea.**

# ON EGIN!!!




**BEHAR DUGULA DIOGUNA
EGITEN AUSARTUKO BAGINA?**

**HASTEKO, ELKARREKIN ZERBAIT EGITEA
GAUZA GUTXIAGO BAINA ZAINDUAGO**


KRRS KN
kutxa kultur
kutxa FUNDAZIOA
Donostia, 2022
cc by sa